Bestelako Xedapenak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

84

EBAZPENA, 2009ko azaroaren 25ekoa, Gizarte Zerbitzuetako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseiluaren Osoko Bilkuran parte hartzeko Eskaerak Jasotzeko Liburuan sartzeko eskaerak aurkezteko epea irekitzen duena.

Azaroaren 25eko 289/2003 Dekretuaren (239. EHAA, 2003ko abenduaren 5ekoa) bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua sortu zen, eta Dekretu horren IV. kapituluan Kontseilu horren Osoko Bilkurarako elkarteen ordezkariak izendatzeko prozesua arautzen da.

Dekretu horren 15. artikuluaren arabera, Ijitoen eta ijitoen aldeko elkarteen ordezkariak izendatzeko prozesua antolatzeko, Kontseiluko Osoko Bilkuran parte hartzeko Eskaerak Jasotzeko Liburua eramango dute Gizarte Ongizateko Zuzendaritzan; Kontseiluko Osoko Bilkuran parte hartzeko Eskaerak Jasotzeko Liburuan sartzeko epea Gizarte Ongizateko zuzendariak ezarriko du, Kontseiluaren Osoko Bilkurarako elkarte-ordezkariak izendatzeko prozesu bakoitzean. Ezohiko arrazoirik egon ezean, hiru urtetik behin irekiko da epea.

Gizarte Ongizateko zuzendariaren 2006ko abenduaren 11ko Ebazpen bidez elkarteen ordezkariak izendatzeko azken prozesua zabaldu zenez, orain beste izendapen-prozesu bati ekin behar zaio eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseiluaren Osoko Bilkuran parte hartzeko Eskaerak Jasotzeko Liburuan eskaerak aurkezteko epea finkatu behar da.

Otsailaren 18ko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeari jarraiki, erabakiak hartzeko gune guztietan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua errespetatu behar da, eta pertsona anitzeko administrazio-organoetan ordezkaritza orekatutzat, hain zuzen, sexu biek % 40ko ordezkaritza, gutxienez, dutenean joko da.

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 6ko 538/2009 Dekretuan xedatutakoa betez, Gizarte Zerbitzuetako zuzendariari dagokio izendapen-prozesu

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

84

RESOLUCIÓN de 25 de noviembre de 2009, del Director de Servicios Sociales, por la que se abre el plazo de presentación de solicitudes de anotación en el Libro de Anotaciones de Solicitudes de participación en el Pleno del Consejo para la promoción integral y participación social del Pueblo Gitano en el País Vasco.

El Decreto 289/2003, de 25 de noviembre, por el que se crea el Consejo para la promoción integral y participación social del Pueblo Gitano en el País Vasco (BOPV n.º 239, de 5 de diciembre de 2003) regula en su Capítulo IV el proceso de designación de representantes de las asociaciones en el Pleno del referido Consejo.

El artículo 15 del citado Decreto dispone que a los solos fines de organización del proceso de designación de representantes de las asociaciones gitanas y progitanas, se llevará un Libro de Anotaciones de Solicitudes de participación en el Pleno del Consejo en la Dirección de Bienestar Social y que el plazo para la anotación en el Libro de Anotaciones de Solicitudes de participación en el Pleno del Consejo será el establecido por la Dirección de Bienestar Social en cada proceso de designación de representantes de asociaciones en el Pleno del Consejo que, salvo razones extraordinarias, se abrirá cada tres años.

Abierto el último proceso de designación por Resolución de 11 de diciembre de 2006, de la Directora de Bienestar Social, procede abrir nuevo proceso de designación, estableciendo plazo para la presentación de solicitudes en el Libro de Anotaciones de Solicitudes de participación en el Pleno del Consejo para la promoción integral y participación social del Pueblo Gitano en el País Vasco.

En cumplimiento de lo dispuesto por la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, es necesario respetar la representación equilibrada de mujeres y hombres en los distintos ámbitos de toma de decisiones, considerándose que existe una representación equilibrada en los órganos administrativos pluripersonales cuando los dos sexos están representados al menos en un 40%.

En virtud de lo dispuesto por el Decreto 538/2009, de 6 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, corresponde al Director

berria irekitzea eta parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea jakinaraztea, EHAAn argitaratuta.

Horren indarrez, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hamar eguneko epea zabaltzea ijito-elkarteek eta ijitoen aldeko elkarteek eskaerak aurkeztu ahal izan ditzaten Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseiluaren Osoko Bilkuran parte hartzeko Eskaerak Jasotzeko Liburuan sartzeko.

Bigarrena.– Parte hartzeko eskaerak azaroaren 25eko 289/2003 Dekretuaren (239. EHAA, 2003ko abenduaren 5ekoa) eranskinean finkatutako ereduaren araberakoak izango dira, eta eskaerarekin batera, adostasun-agiria ere aurkeztu beharko dute, zeinaren bidez elkarteek aho batez izendatu baitute Osoko Bilkuran ordezkatuko dituzten kontseilukideak, edo guztien adostasuna lortzen ez bada, dekretu honetako 7.2.d artikuluaren bigarren paragrafoak aipaturiko abalak.

Hirugarrena.– Parte hartzeko eskaerak Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzara igorri behar dira, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan jasotako edozein modutan aurkez daitezke.

Laugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseiluaren Osoko Bilkurarako elkarteen ordezkariak izendatzeko prozesua Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedaturikoaren araberakoa izango da, eta ordezkaritza orekatutzat joko da, hain zuzen, sexu biek gutxienez % 40ko ordezkaritza dutenean.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko azaroaren 25a.

Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria,
ALFONSO GURPEGUI RUIZ.

de Servicios Sociales la apertura del nuevo proceso de designación y la comunicación del plazo para presentación de solicitudes de participación mediante publicación en el BOPV.

En su virtud,

RESUELVO:

Primero.– Abrir un plazo de diez días a partir del día siguiente a la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco para que las asociaciones gitanas y progitanas puedan presentar las solicitudes de anotación en el Libro de Anotaciones de Solicitudes de participación en el Pleno del Consejo para la promoción integral y participación social del Pueblo Gitano en el País Vasco.

Segundo.– Las solicitudes de participación deberán ajustarse al modelo establecido en el anexo del Decreto 289/2003, de 25 de noviembre (BOPV n.º 239, de 5 de diciembre de 2003), y deberán ir acompañadas del documento de consenso por el cual las asociaciones han designado por unanimidad a los vocales que han de representarlos en el Pleno o bien, en caso de que no se alcance la unanimidad, los avales a que se hace referencia en el apartado segundo del artículo 7.2.d) del Decreto 289/2003, de 25 de noviembre.

Tercero.– Las solicitudes de participación deberán dirigirse a la Dirección de Servicios Sociales del Gobierno Vasco y podrán presentarse en cualquiera de las formas contempladas por el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Cuarto.– La designación de representantes de las asociaciones en el Pleno del Consejo para la promoción integral y participación social del Pueblo Gitano en el País Vasco deberá ajustarse a lo dispuesto por la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, considerándose que existe una representación equilibrada a dichos efectos cuando los dos sexos están representados al menos en un 40%.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Resolución surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 25 de noviembre de 2009.

El Director de Servicios Sociales,
ALFONSO GURPEGUI RUIZ.